


Bergarako astekaria

Berrigara

Hiru hilabeteko espedizioa

JON LAZKANO GREZIA, IRAN ETA
PAKISTANEKO MENDI GAILURRETARA

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Maiatzaren 2an ama guztien eguna



Lore naturalen sorta
Lislore, Barrenkalea 28




Cabotine
perfumea
Amala,
Barrenkalea 28



Calvin Klein
betaurrekoak
Manso, Irizar 2



Diamantezko
eraztunak
Etxeberria,
Bidekurutzeta 16



Belcor
bainujantzia
Zubikua,
Barrenkalea 28



Era guztietako poltsak
Garnish, San Pedro 12



Ballco poltsa
eta oinetakoak
Galarreta, Irizar 2



Pijama
eta barruko erropa
Gantxegi,
Telesforo Aranzadi 2

**Berarendako
beti gauzarik
onenak**



Missing

Markos Balentziaga / Irakaslea

Buztana tente-tente zekarrela inguratuko jatzun, zeuri musura begiratu baimen eskean edo, eta hanka igoko zotsun; gero, kurioso-kurioso, orpo osterantz joango zan... Mimizan kateme pintto gorriak agur egiten zihardotsun, zeurekin jolas egin guran seguruenik.

Kitto da, baina, gure ethezain perkatxa. Ez dakigu zerk urratu dotsan bihotza gure Mimizani, arrastorik laga barik etxetik alde egiteko... Katar donjuanitoren batek endredatu ote dosku? Haren miau potxoloak gustatu ete jakoz? Beste nonbaiteko xagu ilustragoak harrapatzera joan ote da? Biologoek, horraitio, serio ikertu beharra dabe katarrek katemei eragiten dotsen minen nondik norakoen kontua.

Xaguen kontrako gerria zan Mimizanen lana, eta etxeukuok ederki dakigu berriketa gutxi erabilten zebala bere jardueran: radar-bigote luzea adi-adi jarten zeban eta han egoten zan xaguen zain amama-pazientzia behin be galdu barik. Buztana, berriz, hain luzea

zeukan ze, aukeran, soka-saltoan erabilteko be balio zeban; eta belarriak, lanean ziharduanean, ia-ia Itxumendiko antena gaineraino luzatzeko gauza zan, Txangala erdia keizpetan lagata. Ederki dakite hori guztia Anatxok, Olatzek, Leirek, Mariak eta Andonik. Eta gabaz begi bat bakarrik itxita egiten zeban lo, bestea xaguen zain ipinita.

Orain, ostera, xaguak Parisko mademoiselleak balira letxe dabitx pasiaran, abaniko eta guzti, amelaun artetik kutxa gainera, keizpetatik eguzki begira, Katxiña eta Miami –top model makalak eurak!– Mimizanen alaba ganorabakoen bigote aurrean.


Mimizanek etxe barruan eta inguruetan be ezartzen zituan bere legea eta agintea. Behin sagasti barrenean, oilategi aurrean, –Andoni maiorazkoa oraintxe eta oraintxe be akordatzen da– oilarrarekin aurrez aurre aurkitu zan Mimizan. Oilarrak gandorra tentetu eta “hanka hemendik aznarbigotito xaxtar horrekin!” jaurti zotsan katuari. Eta hain begiratu zorrotza egin zotsen

alkarri, eze Andonik plateran zeuzkan arrautzen artean gainekoaren oskola pare-parean harrapatu eta pitzatu egin zeben! A zer sustua Andonik! Baina, hainbestean be, ez zan besterik jazo.

Orain, baina, akabo! Katemea galdu dogula eta, etxean guztiok gara penaz. Missing da gure Mimizan. **B**

“Orain, xaguak Parisko mademoiselleak balira letxe dabitx pasiaran, abaniko eta guzti, amelaun artetik kutxa gainera, keizpetatik eguzki begira, Katxiña eta Miami Mimizanen alaba ganorabakoen bigote aurrean”

barruan



Orlando Pineda

Carlos Fonseca elkartekoa

“Latinamerikan ez dago analfabetismoa kentzeko borondate politikorik gaur egun”

8.



J. A. Pagaldai

Athletic Club lagunartekoa

“Peña aurkezteko Imanol, Luis Fernandez eta Guerrero ekarriko ditugu”

21.



Maite Garcia

Txolarte elkartekoa

“Txolarteko gutxituekin lan egiteko gogoia eta borondatea beharrezkoak dira”

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1965. Apirilaren 26an hasi zen martxan Zerrajerak montatu zuen lehenengo labe elektrikoa, aurreko labe zaharrak ordezkatzera etorri zena. Alemaniako tekniko batzuk jardun zuten hiru hilabetetan zehar instalazioak puntuan jartzen eta bigarren labe batek urte bereko uztailean ekin zion lanari.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1857. Apirilaren 19an Banco de Bilbao diruetxea sortu zen.
1872. Apirilaren 21ean II. Gerra Karlista hasi zen.
1921. Apirilaren 24an "Argia" sortu zen, gerraurreko euskarazko astekari nagusia. Bittor Garitonaindia izan zen zuzendaria.

MUNDUAN GERTATUA

1870. Apirilaren 22an Vladimir Ilich Ulianov "Lenin" jaio zen.
1898. Apirilaren 21an William MacKinley Estatu Batuetako presidentea Kubako gerra deklaratu zion Espainiari.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzita 16

4-17-19-27-38-45 (osag.36/itz.7)

Astelehena 19

1-14-17-23-36-44 (osag 22/itz.4)

Martitzena 20

1-2-6-7-11-32 (osag.24/itz.1)

Eguaztena 21

8-12-17-21-44-49 (osag.35/itz.4)

PRIMITIVA

Zapatua 17

7-16-27-36-42-49 (osag.9/itz.2)

Domeka 18 Saritzarra

5-6-11-25-27-46 (osag.9/itz.8)

ONCE

Eguakitzita 16: 73.665 (130 seriea)

Astelehena 19: 32.083

Martitzena 20: 61.248

Eguaztena 21: 41.290

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatuan zeru estaliak izango dira goiz parte eta iluntzean, eta eguerdi eta arratsaldean urdinguneak zabalduko dira. Domekan hodeiak nagusituko dira eta euria egin dezake. Temperaturak gora egingo du; haize aldakorra izango dugu.

Eguzkia

Domeka, apirilak 25



Sortu: 07:26



Gorde: 21:08

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

Ilargiaren aldiak



Ilberri: apirilak 16



Ilgora: martxoak 22



Ilbete: martxoak 30



Ilbehera: maiatzak 8

max. min. euria

°C °C l/m²

Eguena 15	10	4	3,6
Eguakitzita 16	12	2	6,7
Zapatua 17	12	4	24,1
Domeka 18	14	6	-
Astelehena 19	21	2	0,3
Martitzena 20	20	5	7,5
Eguaztena 21	19	7	0,2

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Arinddu

Pixua galdu.
 - Poltsikuak majo arinduta etorri giñan bakaziñotatik.

Buru arindu.
 - Gure amandriak, arintzen asi zanian, majo jote zeban panderua lapiko tapiakin.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Mikrouhin-labeak arriskutsu

Janari ontziratua mikrouhin-labean berotzeak arrisku nabarmena omen du, gobernu britainiarreko Elikaduraren Zientzien Laboratoriorak egin berri duen ikerketa-lanari esker jakin ahal izan denez: ontzietako tintak dituen substantzia kutsakorrek elikagaietara pasa litezke eta substantzia horiek, itxura denez, espermaren kalitatean eragina izan lezakete.

Farmaziak

Eguakitzita 23:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 24:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Domeka 25:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 26:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 27:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 28:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 29:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 25: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85


zorion agurrak

ESKER ONA

Matias Atorrasagasti Gantxegi

Gasteizen hil zen 1999ko apirilaren 14an,
79 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei
eskerrik asko sendikoen izenean.*




Juan Virumbrales
Apirilaren 26an
57 urte.
Urte askotarako!
Lagun berezi bat.



Miren Santa Cruz
Apirilaren 29an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Agiriano
Apirilaren 28an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Amaia Uriarte
29an 3 urte. Urte
askotarako eta
muhu handi bat!
Ander eta gurasoak.



Gorka Martinez
Apirilaren 27an
16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitor Exaniz
Apirilaren 27an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Roberto Bretaña
Apirilaren 23an
26 urte. Urte
askotarako! Sandra
eta etxekoak.



Ainhoa Aiastui
Apirilaren 27an
6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Garazi Agirrezabal
Apirilaren 26an
3 urte. Urte askota-
rako! Jone, aitaxo
eta amaxo.



Jone Larrañaga
Apirilaren 27an
6 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak eta
amama.



Andoni Kortabarria
Apirilaren 24an
3 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak.



Ane Lorea Larrañaga
Apirilaren 28an
6 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak.



Alazne Alberdi
Apirilaren 26an
13 urte. Urte askota-
rako eta muhu
handi bat! Etxekoak.



Angel Barquero
Apirilaren 28an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Txisp.



Manu Rodriguez
Apirilaren 27an
24 urte. Urte
askotarako! Guraso
eta anai-arrebak.



Jon Ruiz de Egino
Apirilaren 28an
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iñigo Moreno
Apirilaren 25ean
17 urte.
Urte askotarako!
Maikel eta familia.



Ane Sancho
Apirilaren 27an
3 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak eta
aiton-amonak.



Iñaso Igarza
Apirilaren 23an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Olatz Mateos
Apirilaren 27an
3 urte. Urte askota-
rako eta muhu handi
bat! Etxekoak.

Datorren asteko alean,
APIRILAREN 30a eta
MAIATZAREN 6a bitarteko
*lagunen zorion agurrak bakarrik
argitaratuko dira.*

hildakoak

BERGARA

Angel Jauregi Aranes

Apirilak 14, 84 urte

Carmen Sanchez Espinosa

Apirilak 15, 73 urte

Jose Alberto Amilibia Peyrussanne

Apirilak 18, 79 urte

Elena Chus Espinosa

Apirilak 19, 70 urte

ANTZUOLA

Pedro Alonso Gonzalez

Apirilak 14, 77 urte

jaiotakoak

BERGARA

Jon Orbea Larrañaga

Apirilak 7

Mikel Alberdi Gomez

Apirilak 7

Urko Morales Alberdi

Apirilak 14

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 10:30.

Monja Zaharrak

Domekak: 19:30.

Zapatuak eta
lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta
lanegunak: 11:45.

Mariaren

Lagundia

Domekak: 10:00.

Zapatuak eta
lanegunak: 09:00.

Antzuola

Domekak:
09:00, 11:30.

Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domeka: 10:00.

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Sobradun** taldearen **"No hay huevos"** apirilaren 30ean Arrasateko Amaia antzokian, 22:30etan.

MUSIKA

► **Voodoo Glow Skulls, Skunk eta Don Cikuta** gaur, eguakitza, 22:00etan Jamen.

► **Abaddom** arrasatearrak gaur, eguakitza, 22:30etan Nahikarin.

► **Udal Musika Bandaren kontzertua** domekan, 12:30etan Udal Pilotalekuan. Programa: *Gipuzkoako futbol federazioaren ereserkia* (Gonzalez Chirlaque), *El murciélago* (Obertura, J. Strauss), *En un mercado persa* (Intermezzo, A.W. Ketélbey), *La torre del oro* (Preludio sinfonikoa, G. Jimenez) eta *A tribute to the Count Basie Orchestra* (T. Mashima).

ERAKUSKETAK

► **Juan Jose Altuna eta bere ikasleen erakusketak** Kultur Etxean, domekara arte, ohizko orduetan.

► **Bingen De Pedronen** margo erakusketak Eibarko Portalea aretoan (Bista Eder, 10), domekara arte, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

KONTZERTUA

A.N.I.M.A.L.

Non: Jam aretoan
Noiz: biahr, zapatua, 22:00etan
Sarrera: 1.500 pezeta

A.N.I.M.A.L musika talde argentinarrak joan zen irailean kaleratutako "Poder latino" euren azken diskoa aurkeztuko du bihar gauean Jam aretoan. Talde hau 1993an eman zen ezagutzera eta gaur egun Argentinako heavy talderik ezagunena dugu. Dagoeneko lau disko kaleratu dituzte eta itsasoaren bestaldean izugarrizko arrakasta lortu dute azken urteotan. Lehen diskoak taldearen izena izan zuen, A.N.I.M.A.L (Acasados Nuestros Indios Murieron Al Luchar) eta ondoren, "Fin de nuestro mundo enfermo" (1994), "El nuevo camino del hombre" (1996) eta lehen aipatutako "Poder latino" izenburuko lanak etorri ziren. Hasieratik taldea hirukotea izan bada ere, azken diskoaren grabaziotik Andres Vilanova dugu batera-jole berria. Berarekin batera, Andres Gimenez (kitarra eta ahotsa) eta Marcelo Corvalan (baxua eta ahotsa) izango dira bihar Amillagako aretoan. An-

dres Gimenez taldeko liderraren hitzetan, "musika astuneko estilo guztiak fusionatzeko asmoa izan dugu beti: hardcorea, heavya, trasha, punk-rocka, grindcorea... Ez daukagu estilo bakar baterako joera, nahasketa aberasgarriagoa iruditzen zaigu".

Max Calavera Sepulturako taldekide ohiak ekoiztu du argentinarren azken diskoa eta bertan 14 abesti biltzen dira, tartean "Milagro", "Familia", "Loco Pro" edo "Los que marcan el camino", Argentinako zerrendetan aurreneko postuetara iritsi direnak. Bihar zuzenean erakutsiko du hirukote honek duen indarra. Aurretik, Ost bizkaitarrak eta Vertigo Sorround Alicanteko taldea arituko dira telonero lanetan.



Argentinako heavy talderik ezagunena zapatuan Jamen.

► **Ricardo Azkargortaren** margo erakusketak Iruñeako Carlos III Kultur Etxean (Carlos III. kalea) maiatzaren 8ra arte.

► **Olatz Goibururen** margoak Nahikarin ikusgai (formato txiki eta berezikoak), hil bukaerara arte.

IKASTAROAK

► **Pol-Pol** Argazki Taldeak antolatuta, zuribeltzeko teknikari buruzko bost asteko ikastaroa Gorka Salmeron argazkilariren eskutik, maiatzaren 3tik aurrera. 943 76 30 90 (Benito).

► **Saltsa eta merenge** hasipaten ikastaroa maiatzetik aurrera Jam-en, eguenetan 20:00-21:30. 943 76 35 81.

LEHIAKETAK

► **II. Abdon Juaristi** pintura

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untzi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

GAR
Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.
BERGARA ☎ 943 76 58 86

PANA DE ROKUA
ELGETA
Asteburuetan bertako babak eta sabieskia
SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73

lehiaketa. Kartelen gaia zezenak eta Bergara izango da. Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 30a bitartean. 943 77 91 58.

DEIAK

▶ **Odol ateraldia** eguaztenean, apirilak 28, 18:30etan Seminarioko lokalean.

▶ **Mahai-inguruak:** "Okupazioa: bizi eredu ala borroka tresna?", eguenean, hilak 29, 19:00etan Kultur Etxean. Eguakitzean, hilak 30, ordu eta toki berean, "Bergarako Udalak zer egin du azken hamarkada honetan gazte sektorean?". Gazte lokalaren proiektukoek deituta.

▶ **Xipizaro** ludotekak begiraleak behar ditu udalekuetarako. Interesatuak izena eman dezakete apirilaren 30era arte. 943 76 23 76.

▶ **Gipuzkoako Odol Emaleen Elkartearen urteko batzar orokorra** maiatzaren 8an Arantzazun. Autobus eta bazkari txartelak (2.700 pezeta) San Antonioko Agirrebeña oinetako dendan (943 76 18 29) edo Barrenkaleko Puy farmazian (943 76 16 87).

▶ **Mendi irteera Belagua aldera** maiatzaren 8an eta 9an, "Goazen mendirik mendi" kanpainaren barruan. Argibideak Pol-Pol elkartearen bulegoan edo telefono honetara deituz: 943 76 48 51.

▶ **Gipuzkoako eskolarteko XIX. Bertsolari Txapelketa.** Lehen kanporaketa Donostiako Santo Tomas Lizeoan apirilaren 30ean, 15:00etan.

KINTADAK

▶ **1949ko jaiotako bergararren bazkaria** maiatzaren 8an Tartufo jatetxean. Izen-ematea Tartufon bertan, 943 76 35 51 zenbakian.

▶ **1960an jaiotako bergararren afaria** maiatzaren 8an Txuringo jatetxean, 21:30etan. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) maiatzaren 1a baino lehen Kutxako 0010815637 kontu korrontean.

▶ **1963an jaiotako bergararren afaria** maiatzaren 8an Txuringon, 21:30etan. Izen-ematea maiatzaren 3ra arte zabalik Ariznoa eta Kortazar tabernetan (1.000 pezetako aurrerapena).

JAIK

▶ **San Prudentzio jaiak Elorregin.** Domekan, hilak 25, auzoko emakumeentzat txokolatea txurroekin, 18:00ean Alkartasuna elkartearen Ondoren, umeentzako jolasak Martitzenean, hilak 27, txopo jasotzea 18:00etan eta eguaztenean, San Prudentzio egunean, Meza Santua 19:00etan. Zapatuan, maiatzaren 1ean, auzo bazkaria Alkartasuna elkartearen.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Muertos de risa

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.
Medianoche (J.B.)
Eguena: 21:30.

ARRASATE. Alai zinema

Leyenda urbana

Eguakitza: 22:00.
Celebrity
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30, 22:00.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:00.

EIBAR. Unzaga

The faculty

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Gloria

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Celebrity

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Patch Adams

Domeka: 17:00.

La promesa

Eguena, zine-kluba: 20:15.

OÑATI. Santana

Celebrity

Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Gato negro, gato blanco

Eguena, zine-kluba: 20:00.

MUERTOS DE RISA

Zuzendaria: Alex De la Iglesia.
Aktoreak: Santiago Segura, El Gran Wyoming, Alex Angulo, Carla Hidalgo.

Alex De La Iglesia zuzendari bilbotarrak (*El día de la bestia*, *Perdita Durango*) Nino eta Bruno umorista bikotearen istorioa errodatu du oraingo honetan, bide batez 1970ko hamarkadako Espainiari errepasoa eginez. Herrietako diskoteketan hasi ondoren, bikoteak izugarritzko arrakasta lortuko du, orduko telebistako izarra izatera iritsiz. Baina bien artean inbidia eta zeloak piztuko dira...



MEDIANOCHÉ

Zuzendaria: Mitchel Leisen.
Aktoreak: Claudette Colbert, Don Ameche, John Barrymore, Mary Astor.

Donostiako Zinemaldiak ziklo bat eskaini zion orain urte batzuk Mitchel Leisen zuzendariari (1898-1972) eta orain bere lanik ezagunenetako bat ikusteko aukera daukagu. 1939ko filme hau komedia bikaina da eta Leisenek erreparto paregabea zuzentzeko aukera izan zuen.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

BUNKY
ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar
Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

GOXO-TOKI
ARTISAUTZAKO IZOLAJA
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35
Martztuilegi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

Komite Internazionalistak taldeak gonbidatuta, Mitch hurakanaren ondorioz Nikaraguako e-gungo egoerari buruzko hitzaldia eman zuen Orlando Pinedak eguenean Kultur Etxean. Hezkuntza mailan gobernu sandinistarekin lan egin zuen eta Latinamerikako analfabetismo indize altuaz ohartarazi nahi du.

G. Zer nolako lana egingen zenuen gobernu sandinista boterean zegoela?

E. Gobernu sandinistaren lehentasunezko zonaldetako bat Costa Ricako mugan dagoen Rio San Juan eskualdea zen. Nikaraguako analfabetismo indize altuena zeukan (%96) eta %3,77ra jaitea lortu genuen 1983tik 87ra bitartean "Amodioaren pedagogia" izeneko proiektuari esker. 1980ko analfabetismoaren kontrako kanpainarekin batera (ordu 150.000 gazte mendietara jo zuten nekazariak alfabetatzeko asmoz) UNESCOren saria merezi izan zuen proiektu horrek. Iraultzak osasunari eta hezkuntzari eman zion lehentasuna. Kontuan izan oraindik ere 100 milioi analfabeto daudela Amerikan. Alde batetik, Latinamerikako herrialdeek ez dute borondate politikorik izan 1969. urtean agindutako moduan 2000. urterako analfabetismoa kentzeko eta, bestalde, gaurko pedagogia aspergariari (a-e-i-o-u modelo) ez du inor engantxatzen.


G. Zertan datza "Amodioaren pedagogia"?

E. Alfabetizazioak 100 kiloko txerriak hazten jakitearekin, nekazaritzarekin, ingurugiroarekiko errespetoarekin edo higienarekin zerikusia izan behar du, herritarrek produzitzen jakin eta aurrera egiteko gai izan

ORLANDO PINEDA

Educacion Popular Carlos Fonseca taldekoa

"Latinamerikan ez dago analfabetismoa kentzeko borondate politikorik gaur"



Orlando Pineda bisitari izan genuen aurreko eguenean Bergaran.

daitezen. Osasun neurri funtsezkoenak ere erakutsi behar zaizkio jendeari, gaisotasunak prebenitzeko, eta ingurugiroari dagokionez, errespetatzen jakin behar dugu, Mitch eta bestelako hurakanen ondorioak gutxitu ahal izateko. Pedagogia honi esker Rio San Juanen analfabetismoa kentzea lortu genuen (bertako lehen

"Arnaldo Aleman gobernuaren Mitcha jasaten ari gara Nikaraguan. Haitirekin batera, Ertamerikako herrialderik pobreena gara"

eskola euskaldunen laguntzarekin eraiki genuela esan behar dut) eta 1990ean, gobernu sandinistak hauteskundeak galdu zituenean, uko egin genion Violeta Chamorroren gobernuarekin kolaboratzeari, ez genuelako pedagogia kapitalista batetako aholkulariak izan nahi.

G. Proiektu hori erabat galdu zen?

E. Gaur egun San Francisco Libren ari gara lanean eta, analfabetismoa gutxitzeaz gain, nekazal produktioak bultzatu ditugu. Zoritxarrez, Mitch hurakanak sekulako kalteak eragin zituen eta arazo dezente dago bertan. Horregatik, laguntza eske etorri gara Europa aldera eta brigadetako gazteak jasotzeko prest gaude baita.

G. Lehen bidalitako nazioarteko laguntza behar zen tokira heldu da?

E. Gobernu kanpoko erakundeek bitartez bidalitako laguntza da herritarrek elikatzen ari dena. Arnaldo Alemanen gobernuak, berriz, ez du herritarrek zintzo jokatu. Bestalde, maiztetik ekainera bitartean ekaitzak jasango ditugu berriz ere. Oso toki konfliktiboan kokatuta dago Nikaragua eta joan zen urtekoa ez zen gure lehendabiziko Mitcha izan; Somozaren diktadurak 50.000 lagun inguru akabatu zituen, 1972ko urrikerak Managua suntsitu zuen, orain Arnaldo Alemanen Mitcha jasaten ari gara, herritarrek ez dutelako ez heziketarik ezta osasunik ere. 800.000 haur inguru eskolara joateke daude, neska gazteak prostituitzera behartuta daude eta biztanlegoaren %70 langabezia dago. Badago halako Mitcha? Haitirekin batera, Ertamerikako herrialderik pobreena gara berriz. **B**

Ezker abertzaleko 23 bergararri ezarritako isunak salatu dituzte

Jakinarazi gabeko manifestazioetan parte hartzeagatik jarritakoak

Ezker abertzaleak 1995 eta 1999 urteen artean antolatutako hainbat manifestazio eta kontzentrazioetan parte hartzeagatik isunak jaso dituzten 23 bergararren izenean, prentsaurrekoa eskaini zuten martitzenean Kultur Etxean hainbat afektatuk, euren egoera salatzeko.



Argazkian, protesta ekitaldietan parte hartzeagatik isunak jaso dituztenetako batzuk.

Aldez aurretik agintaritzari jakinarazi gabeko kontzentrazioetan edo manifestazioetan parte hartzeagatik, pankarta eusteagatik edo kontsignak oihukatzeagatik ezarritako isunak dira. Martitzenean Kultur Etxean bildutakoek adierazi zuten, adierazpen askatasunaren kontrako zigorrak dira hauek eta gizarte hau normalizatu nahi badugu, isun

hauek kendu egin beharko lirateke”.

Bi motatakoak dira ezarri zaizkien isunak: administratiboak eta fiskalak. Azken hauek, prozedimendu judizialaren bitartez tramitatzen dira eta 50.000 pezetatik 5 milioira artekoak izan dai-

tezke. Kasu hauetan, ordaintezintasuna aitortzen dutenak epaituak izan daitezke eta kartzela zigorra jaso edo libre gera daitezke. Beste kasu batzuetan, etxea ere enbargatzearekin mehatxatuak izan ondoren, epai-leak zehaztutako diru kopu-

rua ordaindu behar izan dutenak ere badira, prentsaurrekoan azaldu zutenez.

Bestalde, isun administratiboak Ertzaintzak zuzenean ezartzen ditu, epailearen aurretik pasatu barik, eta esan zuteenez, Ertzaintzak egiten ditu epaile eta fiskal lanak. 15 eguneko epea jartzen ei da isuna errekurritzeko, baina errekurritu arren ere 150.000 pezetako isunak jartzen dira.

Afektatuek herri mailako plataforma txiki bat osatu dute, era honetako isunei aurre egiten laguntzeko hainbat ekitaldi antolatzeko. Esaterako, sotsak batzeko zozketa bat antolatu dute. Saria, Soraluze-ko preso politiko batek egindako 100.000 pezetan baloratutako pintura lan bat da.



Mikel Lete eta Victoriano Gallastegi, Xabier Arzalluzen alboetan.

Xabier Arzalluzek egoera politikoa aztertu zuen Bergarako Batzokian

Xabier Arzalluz EAJko Euzkadi Buru Batzarreko presidentea Bergarako batzokian izan zen joan zen egunean. Arzalluz gaur egungo egoera politikoari buruz mintzatu zen alderdikideen aurrean. Arzalluzekin batera, Mikel Lete Bergarako Uri Batzarreko presidentea eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren.

Bestalde, Udal hauteskundeetako EAJ-Earen hautagaien zerrenda osatzen ari dira poliki-poliki. EAko kideentzat, bigarren, bosgarren eta hamargarren tokia gordeko da eta gainontzeko hautagaiak EAJrenak izango dira. Alkategaia Victoriano Gallastegi izango da eta bigarren postuan Jose Antonio Etxeberria joango da.



Besteak beste, aparteko orduak kentzearen aldeko konpromisua hartu dute sindikatuek eta patronalak. ARTXIBOA

Gazte asteburua antolatu dute Gazte lokalaren aldekoek

Gazte lokalaren aldeko taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu datorren astebururako, Bergaran gazteentzako gune autogestionatu baten alde. Datorren eguean, hilak 29, arratsaldeko 7etan Kultur Etxean "Okupazioa: bizi eredu ala borroka tresna" gaiari buruzko mahainguruia izango da. Eguakitzean, beste mahainguru bat izango da "Bergarako Udalak zer egin du hamarkada honetan gazte sektorean?" gaiari buruzkoa, toki eta ordu berean eta 22:15etan euskal laburmetraien ordu eta erdiko emanaldia izango da Kartzela Zaharrean.

Zapatuan, Gazte lokalaren proiektuaren azalpena emango da San Martin plazan eta, ondoren, poteoa, kalejira eta herri bazkaria izango dira. Arratsaldean, rock kontzertua San Martin plazan. Domeka arratsaldean, azkenik, Aitzol Mujika, Josune eta Edurne eta Moraureren emanaldiak izango dira Ziripot, Arrano eta Infernokua tabernetan. Amaitzeko, iluntze partean, manifestazioa Gazte lokalaren alde.

Metaleko hitzarmena sinatu dute langileek eta ugazabek

Gipuzkoa osoan 47.000 langileri eragiten die

Aurtengo eta datorren urteko Gipuzkoako Metaleko hitzarmena sinatu berri dute sindikatuek eta patronalak. 1999. urterako 2 puntuko igoera adostu da; 2000. urterako, ostera, aurreko urteko KPI baino 1,2 puntu gehiago. Antzinasunari dagokionez, 1999. urterako 1,4 puntuko igoera eta datorren urterako 0,5 puntuko hitzartu dira. Jubilazioari dagokionez, 1999 urterako 1,5 puntuko igoera eta datorren

urterako 1,75 puntuko. Horrez gain, aparteko orduak kentzea adostu da. Mantenimendurako bazarrik ematen da aparteko orduak sartzeko baimena eta, kasu honetan, sartutako ordu bakoitzeko, langileari 120 minutu hartzea dagokio astegunetan eta 140 minutu jaiegunak badira. Azkenik, aldi baterako enpresen bidez kontratatutako langileei, gutxiengo soldata zurtzen zaie. Bestalde, zerbitzu

enpresak kontrolatzeko batzorde bikoitia sortzea adostu dute sindikatuek eta patronalak.

Horrez gain, 1997an sinatu zen lau urterako lan jarduna. 1999.ean, 1.738 ordu eta 2000.ean, 1.733 ordu dagozkio langile bakoitzari.

Metaleko konbenioak 47.000 langileri eragiten die Gipuzkoan. Bergarako datu zehatzik ez daukagu, baina 1.900 eta 3.000 artean egon daitezke.

AGOITZ Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Lana eskaintzen duten enpresen gida argitaratu da

Lan bila dabilzanendako edo unibertsitatera doazenendako

Bergarako Udaleko Enplegu zerbitzuak lana eskaintzen duten enpresen gida kaleratu du. Gidaren helburua unibertsitatean hasteko adinean daudenei edota lanean hastekotan daudenei laguntzea da. Unibersidad-Empresa fundazioak lan bila dabilzan ikasleendako eta titulatu berriendako urtero argitaratzen duen liburuaren laburpena da. Liburu hori Udal liburutegian kontsultatu daiteke, baina bertatik ateratzea ezinezkoa denez, 100 orrialdeko gida, euskaraz eta gazteleraz idatzita, kaleratu du Udalak. Gida Udal liburutegian bertan hartu dezakete interesa duten guztiek, debalde. 500 ale argitaratu dira.



Udalak argitaratu duen gidaren azala.

Gida hiru zatitan banatuta dago. Lehenengoan, nor zara?, zer egin nahi duzu?, zer egin dezakezu? eta non lan egin dezakezu? galderari erantzunez, proiektu

profesional bat definitzeko eman beharreko urratsak zehazten dira. Bigarrenean, curriculum vitae eta aurkezpen gutunak nola egin azaltzen da. Azken kapituluak, gazteei lana eskaintzen dieten enpresen zerrenda jasotzen da.

Hego Euskal Herriko 50 enpresari buruzko helbideak eta datuak zehazten dira. Bergarako Tavex ere agertzen da bertan. Bestalde, kapitulu honetan, aldi baterako enpresen eta boluntarioria taldeen eskaintza ere jasotzen da.

Aste Santu inguruan argitaratu zen gida, datorren urtean unibertsitatera joatekotan dauden gazteak sasoi honetan zein karrera aukeratu aztertzen dabilzako.

Autopistari buruzko kontrako iritzia eman du EHk

Bergarako Euskal Herritarrok-ek Eibar-Gasteiz autopistari buruzko kontrako iritzia eman du prentsa-agiri baten bitartez. Autopistaren inguruko erakusketak marketing operazioa besterik ez dela dio EHk. Bestalde, autopistari buruz herritarrek duten iritzia jakiteko IGP-NIP prozesua egin zenean, autopistaren aldekoak %15 izan zirela dio; "horietatik, %5ak ikusten zuen beharrezkoa ordainduta izanez gero". Gehiengo gaur egungo errepidea konpontzearen alde agertu zela dio.

Trafikoaren arazoa konpontzeko, autopistaren ordez, bailarako errepideak berriztearen aldekoa da EH: "Oraingo saihesbideak erabiliz, eta hirugarren karrilak, errotondak, desdoblamentuak e.a. eginez. Horrela, herrien arteko lotura bultzatuko genuke eta ez genuke ezer ordaindu beharko errepideak erabiltzeagatik".

EHrentzat autopistak bailarari kalte egingo dio: "Ez dio bailarako trafiko arazoei erantzungo, nekazal ikuspegitik onartezina da, dirugaltze izugarria suposatzen du eta A-8 autopistaren peajearen luzapena ekarriko du". Autopista berria eraikitzeko, A-8 autopistaren peajea 2043. urtera luzatu behar izana salatzen du EHk: "Ikerketa soziologiko batek erakutsi du biztanleen %80 peajea luzatzearen aurka dagoela".

Aranzadi eta Irala kaleen arteko eskaierak konpontzean

Construcciones Arreta C.B. enpresari adjudikatu zaizkio 2.578.100 pezetan Telesforo Aranzadi eta Irala kaleen arteko eskaierak aldatu eta konpontzeko lanak. Hain zuzen ere ertzean dauden lorategiak kendu egingo dituzte eta eskaierak hormaraino luzatuko dituzte; eskaierak zabalduko direnez, barandilak ere lekuz aldatuko dituzte, espazio berrira egokitzeko. Lanak egun gutxi batzuk barru hasiko dituzte.



Paretaren ondoko lorategia kendu egingo dute.

Berrigara

364 zenbakia.
1999ko apirilaren 23a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Mariipi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Jon Lazkano.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

MUNDUAK EZ DITZALA GAZTEAK ALDATU

“Gazte bat egunero ateratzen zen New York-eko kaleetan zehar pankarta hau soinean eramanez: alda dezagun mundua. Goiz hartan, ia egunero ikusi ohi zuen gizon batek oihukatu zion, ezjakintasunak sortu ohi zuen segurtasun horrekin: pankartatxo horrekin aldatu behar duzu mundua akaso? Gazteak zera erantzun zion: mundua aldatzea baino gehiago nire asmoa da munduak ni ez nazala aldatu”.

Gure gizarte kapitalistak Jainkoa aurreztu du gizakia-
ren bitzitza aurreztearen poderioz. Era berean, ekonomia inperatibo sakratu eta bitzitza sistema ekonomiko bihurtu du, hots, produkzio eta kontsumoaren jolas bat. Produkzioa eta kontsumo gizarte modernoaren elika-

gaia da. Honela elikatuz, gizarzteak zorionsua delako ustea du: bizimodu mailaren handitzea, erreztasun kontaezinak, kultura guztiontzat, alegia, ongizate gizarzte deritzoguna. Laburbilduz, lan egin bizirauteko eta biziraun kontsumituz eta kontsumituzeko.

XXI. mendearen atarian inoiz ez da izan halako sasi-bizimodurik: kontsumo eta biziraupenaren espazioa eta zahartzearen denbora, ez garelako bizi, bitzitza kontsumitu egiten dugulako. Hauxe da gazteak behartuta dauden espazio-denbora. Goseak ez hiltzeko ziurtasunak aspermenez hiltzea dakarren mundurik ez dugu nahi.

Uste dut hauxe dela hain zuzen ere “Gazte lokala” proiektuan murgildu diren gazteek aldarrikatzen dutena: gizarzteak eskain-

tzen ez duen gazte guztien elkarbizitzarako bene-benetakotako topagunea, gazteak definitu eta sortua, Bergarako gazteen arteko komunikazio-pizgarri, bertako talde desberdinen adierazpide moduan.


“Gazte lokala” proiektuarekin piztuko den sormenak gaudituko du eguneroko bizitzan nagusitzen ari den zakarkeria eta pobretzea.

Modernitatearen gau luze honetan ezarritako sasi-bizimodu horren alternatiba gisa sorturiko edozein keinu kontuan ez hartzea irain bat izango litzateke.

“Gazte lokala” proiektuak mundua aldatuko ote duen ez jakin arren, badakit ziur proiektuaren bidez munduak ez dituen gazteak aldatuko.

Jose Mari Galan

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

Zeri emoten dotsazu lehentasuna: osasunari, maitasunari ala diruari?



Jose Ramon Sanchez

Osasunari, noski. Osasuna gauza ona da eta gainontzeko guztia edukitzeko beharrezkoa. Hainbat aldiz operatu naute eta osasunez nahiko petral nabil.



Pilar Rodriguez

Lehendabizikoa eta garrantzitsuena osasuna da. Gero, maitasuna eta, azkenik, dirua. Diruari ez diot garrantzirik ematen. Maitasuna ere bizitzeko beharrezkoa da.



Mari Jose Salas

Ondo sentitzen ez bazara, dirua eta maitasuna edukitzea alferrikakoa da. Osasuna da garrantzitsuena. Bigarren mailan, maitasuna, hau da maitatua izatea.



Herminia Diaz

Osasuna dagoen bitartean, maitasuna dago eta ondoren beste guztia dator. Maitasun eta osasun kontuetan ondo nago eta, beraz, pozik bizi naiz.



Julio Lanchas

Osasuna, maitasunaren oinarria da. Diruak ez du osasuna eta maitasuna lortzen. Osasunari dago-kionez, nahiko ondo nago. Ezin nahiz kexatu.



Francisco Sanchez

Osasunik ez badago ez daukazu besteak disfrutatzeko aukerarik. Maitasun eta osasunari dagokionez, daukagunarekin konformatu beharko gara.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

ZURRADERO KALEKO EGOERA DELA ETA

Roman Lazpiur Zurradero kaleko Aratz al-baitari klinikako jabeak erantzun nahi izan dio BERRIGARATEN 362. alean azalduko kexari. Hainbat bizilagun kexu ziren kale horretan egoten ei diren txakurren zikinen-gatik eta Roman Lazpiurrek gauzak argitu nahi izan ditu.

Romanek dioenez, obligaziorik izan ez arren, animalien kakak eta txizak berak garbitzen ditu egunero. Gainera, klinikara joaten diren animaliez gain, beste asko inguruan ibiltzen direla dio. Azkenik, animalien zikinak arautzeko Udalarekin kolaboratu duela gogoratu digu eta bera dela kontzientziario arazo hau konpontzeko interesatuetako bat.

■ ikuspuntua: iñaki ugarteburu

Boluntariotza

Gizartea aldatzen ari da, sarri entzun dugu eboluzioa ona dela, eta horrela izango da. Baina lerro hauetan azaldu nahi dudana eboluzioa, ez nuke esango hain ona denik. Azken hamarkadetan Bergaran eta Euskal Herri osoan asko eta asko izan dira dantza, euskara, gizarte edo kirolaren inguruan mugitu diren taldeak, herrian dinamika bat sortuz, alternatiba berriak eskainiz edo/eta proiektu berriak martxan jarritz. Bergara dena eta Bergarak duena zati handi batean horietan esker da, taldeek, pertsonak, familiek



eskaini diote bere denbora libreka zale-tasun edo ideal bati.

Baina, zer gertatzen ari da? Hainbat talde desagertu egin dira, beste batzuk arris-


kuan daude eta talde gehienetan daudenak urte larregi daramatzate eta erreleboaren zain daude, edo erreleborik ez bada laguntzaile berrien zain. Baina erreleboa ez dator, talde gehienak dira kexu honetaz, antza denez beste bide bat aukeratu dugu gaurko gazte eta helduok; denbora falta izango da, konprometitzeko beldurra, dauden taldeak

ez datozela bat gaurko arazoekin... Baina arazoa hortxe dago.

Bergarako Udalak Kultura, Euskara, Gizarte Ongizate eta Kirol zerbitzuen bitartez ikerketa bat egin nahi du Bergarako taldeen artean, egoera ezagutzeko eta irtenbide egokiak aurkitzeko; horretarako SIADECO enpresa kontratatu du eta datozen hiru hilabeteetan, laguntza beharko dute errealtateaz jabetzeko. Ea zerbitzetarako balio duen. Dena den, mesedez, dedikatu 30 segundu pentsatzera zuen bizitzan zein eragin izan duten arlo ezberdinetako boluntario taldeek, eta ondoren erabaki prest gauden taldeak desagertzen lagatzeko. **B**

■ asteko menua: txuringo jatetxea

Baserriko oilaskoa, egurrezko labean egina



JUANTXO ALDALUR
Txuringo jatetxeeko sukaldaria

OSAGIAK (4 lagunendako)

- 3,5 kilo oilasko
- 15 gramo gatz
- 125 gramo limoi
- Litro laurden ur
- Baso erdi ardo zuri

PRESTAKETA

- Lehenbizi, egurrarekin txingar bizi-bizia prestatu.
- Laba barruan 130 graduko temperatura lortu behar dugu eta horrela eduki beharko dugu ordu eta erdian zehar. Beraz, txingar bizia lortu behar dugu.
- Ontzi erreflektario batean, oilaskoa prestatu. Oilaskoari, ura eta gatza bota eta, azkenik, tripa barruak limoiez bete.
- Labean ordubete inguru eduki ostean, ardoa gaintetik bota eta beste ordu erdiz egiten eduki.

■ adituen esanetan

Polen alergikoak

RICARDO PAGOAGA, *medikua*

Udaberri sasoian polena hainbat gaisotasun alergikoren eragilea da, rinitis alergikoa eta asma esate baterako. Polenaren artean badira alergiekin zerkusi handiagoa dutenak: zedroa, oli-bondoa, urkia, pinua edo haritza zuhaitzena, gariarena eta artoarena eta belarretako eta asunetako polena ere bai. Onddoetako esporen polenak ere alergiak eragin ditzake. Alergenoarekin (alergia zaion produktua) kontaktuan egotean, organismoak eraso moduko bat sufritzen du eta neurritz kanpoko erreakzioa izaten du. Horrela, organismoak erreakzio inflamatorioak jasaten ditu eta, ondorioz, alergiaren sintomak

agertzen dira, asmatikoen kasuan bronkioen inflamazioa eta sudurretako kongestioa rinitisa sufritzen dutenengan.

Alergiaren susmoa dagoenean, proba alergikoen bitartez diagnostikoa konfirmatzea gomendatzen da, horrela alergenorekin esposizioa mugatzeko. Polenaren kasuan ez da erreza esposizioa saihestea, baina ahal den neurrian mendira ez joatea, belarretan etzanda ez egotea edo mendira goazenean kotxeko leihoak itxita izatea ondo dator. Azkenik, sintomak desagertzen ez badira, gaur egun badira kalean egoera hori nabarmen hobetzen duten medikamentuak. **B**

■ bergarako gordailutik

BERGARAKO BASERRI DENAK

Imanol Sorondo

Bergaran erretako baserri buruzko Elkarte edo Hermandadea 1657. urtean sortu zela eta herrian zeuden baserri guztien izenak ipintzen dira. Guk ere, banan-banan, denon izenak ipiniko ditugu, baina azpimarratzekoa den berezitasun batekin zeintzuk zeuzkaten baserriaren izena eta nagusiaren abizena bat bera; zeintzuk baserriaren izena eta nagusiaren bigarrena berdina eta zeintzuk ziren, berriz, desberdinak zeuzkatenak. Ipiniko dugun bezala, 1657. urtean.

Baserriaren izena eta nagusiaren abizena bat bera zeuzkatenak 52 hauek dira:

Elcoro-Barrutia, Garitano, Laudans, Bereziabar, Eguino, Aguirre, Barrutia, Irazabal (goikoa), Lonbida, Eguren, Amuchastegui, Gallaiztegui (Olasokoa), Lesarri (goikoa), Verasiartu, Izaguirre, Laspiur, Narbaiza, Oregui, Mocolaeta (goikoa), Ascargorta (goikoa), Mocolalde (goikoa), Jauregui, Moyugoitia, Arana (erdikoa), Arana (goikoa), Oruesa-gasti, Sagastizabal, Elcoro (goikoa), Basterrika, Arana, Gaztelu (goikoa), Alday (goikoa), Aristizabal, Veistegui, Zabaleta, Olariaga, Arimendi, Mendizabal, Gaviria, Alday (azpikoa), Elorregui, Amusquibar, Aldaeta (goikoa), Lamariano, Iribe, Oyangueren, Artolazabal (behekoa), Ayardi (goikoa), Campos, Albi-sua, Iñarra, Aguirre-gomezcorta, Ganchaegui (goikoa).

Datorren astean ipiniko ditugu desberdinak zeuzkatenak eta nagusiaren bigarren abizena baserriaren izenarekin bat zutenak ere bai; azkenengo hauetan, ziurrenik orduko ohituretan, nagusiek ez zuten gizonetzko semerik izango eta bertako alaba ezkontzerakoan etorriko ziren sail horretara. Jarraituko du. **B**

Loiola Irratian

Aranzadi Ikastolako 2. mailako ikasleak Loiola Irratiko **"Kukumiku" saioan** izan ziren zapatu goizean. Gaztetxoek oso ondo pasa zuten **Marilu Odriozolak** aurkezten duen programan eta txisteak, kantuak, aho-korapiloak eta asmakizunak bota zituzten mikrofonoetatik. Loiola Irratiko entzulegoak ere saioarekin gozatuko zuela uste dugu. Argazkian ezkerretik eskumara, Uxue, Josu, Ainhoa, Maite, Madi eta Imanol (jarrita) Marilu Odriozolarekin batera.



Moda desfilea Ipintzan



Ipintza institutuko DBHko 4. mailako ikasleek **ikas-bidaiaren aldeko moda desfilea** egin zuten zapatuan institutuko aretoan. **Sofia Gimbert eta Iban Unanue** aritu ziren aurkezle lanetan eta euren lagunek ere estilo bikaina erakutsi zuten udaberriko moda aurkezterako orduan. Haur talde bat ere izan zen pasarela ganean txikienen jantziak erakusten. Ikasleak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin, aretoa jendez gainezka egon baitzen egin ziren bi paseetan. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiete desfilean kolaboratu zuten guztiei. Azterketen estuasunak gainditu ondoren, ekainean **Saloura** egingo dute bidaia. Ez ahaztu postala bidaltzeaz!!



Bertiz ezagutzen



Jardunek antolatutako "Bergara ezagutzen" lehiaketako irabazleak **Bertizen**, Nafarroan, izan ziren astebukaeran. Gogoratuko duzuenaz, Aranzadi Ikastolako DBHko 3. mailako **"Petu petuan"** taldeak irabazi zuen txapelketa eta, sari gisa, astebukaerako bidaia irabazi zuten. Taldeko 15 lagunekin batera, **Eider Aranzabal, Nekane Gabilondo eta Leire Guridi** begiraleak abiatu ziren Bertiz aldera. Hango aterpetxe batean izan zuten egonaldia eta eguraldiak lagundu ez bazien ere, primeran pasatu zuten antolatutako irteerekin. Bizikletan eta zaldian ibiltzeaz gain, uretan ere ondo moldatu ziren raftinga eta hidrospeed egiten. Gaur bertan **"Bergara ezagutzen"** lehiaketako finalerdietara iritsi ziren lau taldeek afaria izango dute Pertxa elkartearen. On egin!!

Txandakako enpresa injinerutza

**Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua.
Lan kontratua lehen egunetik.**

Bilera informatiboa

- Datorren apirilaren 30ean, ostirala, bilera informatiboa izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 18:30etan Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

1999/2000 ikasturtea

■ Makina Erremintaren Institutua
San Roke auzoa 1 20870 Elgoibar

■ Tf. 943 74 41 32 Faxe: 943 74 41 53
E-mail: ingenieria@fmh.es

■ Orduetgia: 8:00etatik 13:00etara
eta 14:30etatik 17:30etara

**Matrikula epea
ZABALIK**



cesi aquitaine
poitou-charentes



Joseba Tapia eta Leturiaren **ero**meria



Eguena 29, 19:30etan
Kartzela Zaharraren
kanpoaldean

**zatoz
dantzara!**

*musika...
eta jateko eta edatekoak
ere izango dira!*



KULTUR
ERROTA
ZIRKUITUA



JENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen aldizkaria:

6. zenbakia. 1999ko apirila.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trubuelo.

Tirada: 11.500 ale.

Berrigara

Arrasate PRESS

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 406 ST 2.0			IZ, KE, LD, AG, ABS	*7
Peugeot 406 ST 1.8			IZ, KE, LD, AG	*7
Peugeot 205 D			IZ, KE, LD, AG, 5 ate	*5
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Renault Clio 1.2				*2

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, LK, AH	*3
Ford Scort 1.6 RS Turbo	SS-AJ	1990	Autobloc, KM gutxi	*3
Ford Sierra 2.0i Sport	BI-AZ	1989	LD, KE, IZ, AG, SE	*2
Renault Supercinco CTX	SS-AB	1988	KE, IZ, LK, AH	*1
Ford Orion 1.6i Ghia	SS-AB	1988	KE, IZ	*1
Citroen BX TZD Turbo	SS-AM	1992	KE, IZ, LD, AH, ABS, AG, LK	*3
Audi 80 1.8E	SS-AB	1988	KE, IZ, LD	*3

BLANCO TAILERRAK (NISSAN BERGARA). Amillaga 22. Bergara. Tf. 943 76 17 35

Peugeot 405 GR 1.9	SS-AC	1998	KE, IZ, SE, IK	*2
Nissan Bluebird 1.8 Turbo Gti	SS-AF	1989	KE, IZ, LD, AG, IK, AH	*2
Renault 21 2.0i Turbo	SS-AF	1989	KE, IZ, LD, IK, AH, AL, Ordenagailua	*2

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Citroen Evasion (Monovolumen)	Ugari	96-97		*7
Ford Mondeo 2.0 16V		1993	Full Equiped	*5
Citoren AX TRD		1990	Kilometro gutxi, 5ate	*3
Opel Vectra 2.0i GT		1991	ABS, AG...	*4
Land Rover Discovery			AG, AH, Sapai bikoitza...	*7
Peuegeto 205 Diesel		1990	5 ate	*3

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UM: Urruneko managailua

*1: 300.000 PTArate
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAtik aurrera

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
 Tf. 943 76 13 84



Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA



Javier Gallastegi Arenaza

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!

Santalaitz 3. Bergara. Tf. 943 76 11 20



AGUSTIN

Automobilaren
 karburazio eta
 elektronika



Uribarri etorbidea 16.
 Arrasate. 943 79 73 58

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44				
Mondeo TDI	SS-AW	96	AG, Full equipped	1.775.000
Mondeo TDI	SS-AS	94	AG, ABS, 2 Airbag, KE	1.750.000
Mondeo TDI	SS-AX	97	AG, ABS, 2 Airbag, KE	2.275.000
Mondeo TDI	BI-BC	95	AG, Full Equiped	1.750.000
Probe 24 i-v	SS-AX	97	Full Equiped	2.650.000
Escort BSI	SS-AN	93	Full Equiped	1.200.000
Escort BSI 4X4	SS-AT	94	Full Equiped	1.500.000
Citroen ZX-I	PM-CJ	96	AG, Full equipped	1.090.000
Renault Express	SS-AL	91	Hainbat osagarri	590.000
C-15 Citroen	SS-AH	90	Hainbat osagarri	475.000

OLA TAILERRAK.

Smart	1999	ABS, 2 Airbag, IZ, KE, UM	*5
Opel Vectra	1998	ABS, AG, KE, IZ, UM, IK	*7
Renault Clio 1.1	1991	IK, 3 ate	*2
Opel Astra GLS1.6i	1992	IK, AG, LD, IZ, KE	*4
Citroen ZX Tentacion 1.9D	1997	IK, IZ, KE, LD, 5 ate	*5
Marka eta modelo ugari	Ugari	Ezaugarri ezberdinak	*1

SEAT UDALAITZ.

Peugeot 405 SRT	SS-AN	1992	AG, ABS	750000
VW Golf 1.9 TD	BI-BS	1993		1200000
VW Golf 1.4	SS-AL	1996		675000

Honako egun hauetan aterako dira hurrengo Dena Auto zenbakiak:

- Ekainak 4
- Uztailak 9
- Urriak 15
- Azaroak 26


San Kristobal dela eta, **Uztailaren 9**ko alea motorrari buruzko berezia izango da.

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UM: Urruneko managailua

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA


*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera

JASO GARAJEA



Autoen konponketa orokorra


Amillaga 1, 4 pabilioia.
 Bergara.Tf. 943 76 33 00



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
 Gesalibar auzoa z/g. Tf. 943 79 99 61 • ARRASATE

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!



Txorno
 Auto-errekambioak
 Ibargarai 33, behea. BERGARA
 943 76 29 95

KANPAZAR BOAT

Alfa Romeo 

Fiat Multipla



Autoaren kontzeptua aldatzen duen autoa

**Alfak diesel motorrentzako
unijet injekzio sistema
dauka barnean**



Alfa Romeo 156

Tailerra: Bizkaia Etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 41 98. Faxa: 943 77 12 84

Erakusketa: Araba Etorbidea, 32. Tel.: 943 79 77 66

ARRASATE - Gipuzkoa

Liburuaren eguna

Gaur, apirilak 23, liburuaren nazioarteko eguna ospatuko da mundu zabalean. Gure artean jai honek urtetik urtera hiriburuetan harrera ezinhobea izan badu ere, herrietan oraindik ez da asko bultzatu eta ez dago tradizio askorik liburuak erosi edo oparitzeko egun honetan. Hala ere, Udal Liburutegia kalera irtetzeko zen gaur, bertan dagoen eskaintza herritarrei gerturatzeko asmoz.

Munduko beste edozein tokitan gertatzen den moduan, Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Gremioak ere hainbat ekitaldi prestatu ditu gaurko egunerako. Ohiturari jarraituz, liburuak saltzeko postuak izango dira zabalik Donostiako Gipuzkoa plazan gaur eguakitza eta bihar zapatua. Azken urteotan jasotako harrerari erantzunez, iaz bezala, bi egunez egongo dira liburu-saltzaileak Gipuzkoa plazan. Guztira, 26 postu jarriko dira eta bertan salgai jarritako liburuek %10eko deskontua izango dute. Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Gremioan 120 liburu denda biltzen dira. Duela lau urtetik Jose Manuel Vilas donostiarra da Gremioko presidentea. Vilasek 1952. urtean ireki zuen liburu denda Grosen eta berarentzat gaurko eguna urteko garrantzitsuen da liburu salmentari dagokionez; "nik betitik ezagutu izan dut egun hau eta esan behar da izugarritzko harrerara ona duela Donostian. Liburuak kalera ateratzean asko saltzen da gaurko egunean eta normalean dendara etortzen ez diren irakurleekin kontaktua izateko aukera dago. Uztailean astebeteko liburu feria ere egiten dugu, baina liburuaren egunean gehiago sal-

Apirilaren 23an irakurketaren inguruko ekimenak



Gaur, eguakitza, liburuaren nazioarteko eguna ospatzen dela eta, Udal Liburutegiko eskaintza ikusgai izango da San Martin Plazan. Arratsaldez, 20:00ak arte egongo dira bertan liburutegiko arduradunak.

ARTXIBOA



Udal Liburutegiak 1.442 bazkide ditu gaur egun, 23 urtera arteko ikasleak gehienak. Guztira, 11.000 bolumen gordetzen dira liburutegiko gela ezberdinetan.

tzen da. Gaurko eguna ez nuke ferriako egun guztiengatik aldatuko. Jende mordoia etortzen da eta bestelako feriantan gertatzen den moduan, jendea erostera animatzen da”.

SALMENTAK GORA

Urtero bezala, Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Gremioak liburuaren egunean gehien saltzen duten autoreak (euskara zein gaztelaniazko kategorietan) Zila-

rrezko Euskadi trofeoarekin sarituko ditu. Joan zen urteko irabazleak Bernardo Atxaga (Groenlandiako lezioa) eta Joan Mari Torrealdai (El libro negro del euskara) izan ziren. Nobedade gisa, aurtengo edizioan, izen handiko bi euskal idazlek sari honorifiko bana jasoko dute.

Katalunian San Jordi eguna da gaur, eta han gizonezkoek emakumeei lorak eta hauek gizonezkoek liburuak opari-

tzeko tradizio handia dago. Jose Manuel Vilasi ideia oso polita iruditzen zaio, nahiz eta Gipuzkoan ez egon horrelako tradizioirik; “duela urte batzuk egin genuen hori bultzatzeko saiakeraren bat; ez zen ondo irten, uste baino harrera eskasagoa jaso zuen eta uko egin genion lorak ekartzeari. Dena den, liburuaren egunean, liburu salmentak gora egin du azken urteotan eta Gremioaren balorazioa oso positiboa da zentzu horretan”. Gipuzkoa plazara era guztietako irakurleak hurbiltzen omen dira; “egia esan, denetik ikusten da. Ikastetxe batzuetan ere liburuaren eguna dela eta, ordu batzuk libre lagatzen diete ikasleei eta gazte txoek gero eta gehiago erosten dute. Gazteak, helduak eta edadetuak ere asko etortzen dira, irakurketak ez baitu adin mugarik... Bestalde, kuriosezterera datozenak ere asko dira eta horrelako jendeak gehienetan telebistan iragarritako liburuak edota gai konkretu bati buruzkoak (landareak, sukaldaritzakoak..., etabar.) erosten ditu”. Dena den,

UDAL LIBURUTEGIA PLAZARA

Liburuaren nazioarteko eguna dela eta, Udal Liburutegia Plazara irtengo da gaur eguakitza, goizez 11:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara. Mila Agirrezabal Udal Liburutegiko arduradunak azaldu digunez, “liburutegiak eskaintzen dituen aukerak ezagutzera eman nahi izan dugu, jendeari materiala gerturatzeko eta jakin dezan zer aurki dezakeen urte guztian guregana etorri gero”. Besteak beste, egunkariak, nobelak, kontsulta liburuak, aldizkari espezializatuak, bidai-gidak, haur literatura, euskarazko bideo dokumentalak, euskal musikako CDak edota Interneten nabigatzeko aukera dago liburutegian. Beti ere, azken nobedadeak izateko ahalegin berezia



egiten dute bertako arduradunek. Guztira, 11.000 bolumen gordetzen dira gela ezberdinetan. Gaur egun Udal Liburutegiak 1.442 bazkide ditu, 23 urtera arteko ikasleak gehienak (860 bazkide). Sexuari dagokionez, 794 bazkide emakumezkoak dira eta gainontzeko 648 gizonezkoak. Hala ere, Mila Agirrezabalen arabera, “adin guztietako jendea etortzen da liburutegira eta mugimendu gehien beharbada opor garaian somatzen da. Orduan jende asko etortzen da liburu eske, horrelakoetan jendea lasaiago dabillelako eta irakurtzeko denbora gehiago daukalako. Iaz 8.185 prestamo egin genituen urte osoan. Eskaintza gero eta handiagoa da eta liburutegian gero eta gehiago irakurtzen dela esango nuke”.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
 Irizar pasealekua 2 behea
 ☎ 943 76 59 54 BERGARA

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
 Bidekurutzeta 16 BERGARA
 Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Deco-Textil ZANGITU
 Etxerako lantzeria
 Alfonso nazionalak eta ekialdekoak
 Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
 ☎ 943 76 08 69

narratiba da gehien saltzen dena; "nobelak eta entsaiuak dira salduenak beti, nahiz eta sukaldariren batek idatzitako salduena gertatu orain urte batzuk. Poesia, berriz, urtean gutxi saltzen dugu; liburuaren egunean, oster, jendea gehiago animatzen da poesia erostera" diosku Vilasek.

NOBEDADEAK

Gaurko egunerako argialetxeek nobedade dezente kaleratzen dituzte eta, promozioari begira, liburuaren aurkezpenak ere izaten dira egunotan. Urteko egoera, berriz, bestelakoa da Liburu-saltzaileen Gremioko presidentearen iritziz; "liburuak nahiko garesti daude, 2.000 eta 3.000 pezeta bitartean, eta jendeak nahiago du liburutegietara jozea. Bestalde, irakurtzeko gero eta denbora gutxiago dauka jendeak eta nahiago izaten du aisialdia beste zer-baitetan igarotzea. Lehen gehiago irakurtzen zela esango nuke, jendeak etxean denbora gehiago ematen zuelako. Orain astebukaeran kanpora doazen askok ez dute libururik eramaten, irakurtzeko denborarik ez dutela izango badakitelako".

Liburuaren nazioarteko egunak probintzian ez dauka hirian besteko oihartzunik. Bergarako Etxepare-Bilintx liburudenda Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Gremioan dago. Hala ere, herrietan ez dago egun honetan liburuak kalera ateratzeko ohiturarik. Josune Lizarralde Etxepare-Bilintx dendako arduradunaren arabera, "herri mailan inoiz ez dugu ezer berezirik antolatu liburuaren eguna dela eta. Hala ere, azken bi urteotan igarri da piskat egun honen ospatzea eta zertxobait gehiago saldu izan dugu". Josuneren hitzetan, "gehienbat jende heldua da liburuak erosten dituen eta oraindik ere nabaritzen da jendeak erdaraz irakurtzeko joera handiagoa duela. Emakume eta gi-

zonen artean, berriz, ez nuke bereizketarik egingo. Antzera etortzen dira guzterak". Liburuak saltzeko sasoirik onena Gabonak dira Etxepareren kasuan eta liburuaren eguna ospatzeak ez du uste irakurketa gehiegi suspertzen duenik. Gauza sinbolikoa da gehienbat eta benetan irakurtzea gustuko duenak ez dauka horrelako ospakizunen beharrik". **B**

"Liburuaren egunean, salmentak gora egin du nabarmen azken urteotan" JOSE MANUEL VILAS

"Benetan irakurtzea gustuko duenak ez dauka horrelako ospakizunen beharrik" JOSUNE LIZARRALDE




Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETAK
ERROTULOAK**

**Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...**



GRUPO ZURICH
ASEGURUAK



GABILONDO
AGENTZIA
INMOBILIARIOA

Gurutzne Elkoro Gabilondo Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN KANPOAN

16:00: Azpeitxi jatetxea-Urrutxurtu
17:00: Bayer-Pagomendi

Pagomendi
Azpeitxi

DOMEKAN KANPOAN

10:30: FAC-Ari Ari
11:30: Errotagain-Jauja OH Zerezos
12:30: Matxakategi-Ortzi
17:00: Ion Autoak-Mo(ko)lotov
18:00: Iribide Jatetxea-Guadalest
19:00: Bildurbarek-Bar Canalejas

Errotagain
Ortzi
OH Zerezos
Iribide
Bildurbarek
Guadalest

argi!

Fitxaketa berririk ez da onartuko

Play offetan jokatzeko ari diren talde batzuk fitxaketa berriak egiteko asmotan omen dabilta eta Antolaketa Batzordeak jakinarazi nahi du ezin dela une honetan fitxaketa berriak egin.

Antolaketa Batzordea fitxaketa berriren bat egin dela konturatzeko bada, talde hori txapelketatik kanpo geldituko litzateke.

Bestalde, asteburu honetan kopako partiduak besterik ez dira jokatu.

nesken futbitoa

EMAITZAK

Potzu ta Zapaburuak-Gu geu 2-3
Nifits-Tetsi 3-1

SAILKAPENA

Gu Geu 6 puntu / 2 partidu
Potzu 6 puntu / 3 partidu
Nifits 3 puntu / 2 partidu
Tetsi 0 puntu / 3 partidu

PARTIDUAK

Domekan M. Altunan
16:30: Gu Geu-Tetsi / Nifits
17:30: Nifits-Potzu ta Zapaburuak / Tetsi

jokoz kanpo



IÑIGO PAGALDAI
Ortzi


G. Nola joan da txapelketa?
E. Orain baino hobeto egon gara. Piskanaka piskanaka beruntz goaz. Adinak ez du barkatzen...
G. Zer ari zarete jokatzeko?
E. Play offa eta kopa. Orain arte bi partiduak irabazi ditugu. Asteburuan kopa besterik ez dugu jokatu.
G. Zein postutan jokatzeko duzu?
E. Normalean aurrean.
G. Zenbat gol egin dituzun gogoratzen?
E. Ez. Hori asko egin ez ditudanaren seinale da.
G. Zenbat urte txapelketan?
E. Ia hasi zenetik. Hasi eta hurrengo urtean hasi ginela uste dut.
G. Gainontzeko taldeak jarraitzen dituzu?
E. Bai. Lehen mailakoak batez ere. Guztiok ezagutzen dugu elkar. Urte asko daramatzagu elkarren kontra jokatzeko.
G. Txapelketako talde eta jokalaririk bat?
E. Azpeitxi eta Aitor Anton. Azpeitxiri gertatutakoa sorpresa handia izan da baina txapelketa ona egin du.
G. Zer aldatuko zenuke txapelketan?
E. Partidu guztiak barruan jokatzea primerakoa izango litzateke. Bestalde, arau gehiegi daude eta horrek jendearen interes falta ekartzen du.
G. Realekoa ala Athleticcekoa?
E. Realekoa noski.
G. Europara iristeko aukerarik?
E. Oso zaila da.

gora eta behera



Lehen mailako lau talde elkarren kontra

Azken jardunaldian, lehen mailako lau talderen artean izan ziren kopako bi partidu nabarmendu behar ditugu. A Ze Flaxa eta Canalejas eta Errotagain eta Mongatxurak arteko partiduak. Bi partidu hauetan, Canalejas eta Errotagain izan ziren garaile. Bestalde, Ortzi taldeak play off eta kopako bi partiduak irabazi zituen eta ondorioz, bietan jokatzeko jarraitzen du.



SLP

Duela bi asteburu Azpeitxi Jatetxea play-offetatik kanpo utzi ondoren, SLP taldeak galdu egin zuen kopari zegokion Urrutxurtu taldearen kontrako azken partidua. Horrela izanik, SLPk play offetan bakarrik jokatu du.

emaitzak

KOPA

FAC-Ezinleike	5-3
Patatus-Ion Autoak	1-5
Azpeitxi Jatetxea-Igandekoak	6-3
Pagomendi-La Juve	6-1
Txipiron-Guadalest	2-2
Ari Ari-Komando Piperrak	2-2
Usoa-Iribide Jatetxea	3-5
Agiñaspi-Ortzi	0-9
Tom Cat Argandolas-Bayer	1-6
SLP-Urrutxurtu	3-6
A Ze Flaxa Etxagi-Bar Canalejas	4-7
Errotagain-Mongatxurak	3-2
Matxakategi-Amozkibar	3-1
Xurruapak-Jauja OH Zerezos	3-9
Buya-Mo(ko)lotov	0-3

PLAY OFFAK

Ortzi-Bayer 4-1

SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikaren
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrea.
Tf. 943 76 71 19

kronikak


**Futbola
BKEko
gaztetxoak
aurrera**

Joan zen asteburuan BKEko futbol saileko oho-
rezko infantil mailakoak ga-
raile irten ziren Ipintzan,
Tolosaren kontra izandako
partidutik. 3-1 irabazi zuten.
Partiduko hasierako minu-
tuak ez ziren bergarren al-
dekoak izan, lehendabiziko
gola kanpotarren onerako
izan baizen.

Arbulu, Uribesalgo eta
Albisuak osatzen duten hi-
ruko teknikoaren taldeak
partiduari buelta eman zion.
2. zatia menderatzen hasi
eta menderatzen amaitu zu-
ten. Horrela lortu zituzten
hiru golak eta kanpotarrak
lehen zatian eginiko gol ba-
karrarekin konformatu be-
har izan ziren. Golegileak,
Jose Javier, Juaristi eta San-
tamaria izan ziren.


**Eskubaloia
Aloñaren
kontra galdu
Iraundik**

Joan zen asteburuan, es-
kubaloiko talde nagusiak
ezin izan zuen garaipena
Oñatitik bueltan etxera eka-
rri. Xabier Lijoren taldean
lau jokalaririk lesioak jota da-
ude eta, ondorioz, gazteen
taldetik bi jokalaririk igo behar
izan zituen entrenatzaileak.

Lijok adierazi digunez,
taldeak joko ona egin zuen
baina gazteek nagusiak be-
zain garaiak ez direnez, eta
baloia jaurtitzekoan altue-
rak zer ikusi handia duenez,
golak egiteko orduan arazo
gehiago izan zituzten. Nor-
gehiagoka 26-17 emaitzaz
amaitu zen. Lau partiduren
faltan, bergarrek lehen
hiruren artean amaitzea es-
pero dute. Asteburuan,
atzetik dagoen Legazpiren
kontra jokatu dute.


**Saskibaloia
Liderraren
aurrean
neskek ezin**

Saskibaloiko saileko talde
guztiek galdu zuten azken
jardunaldian. Jubenil maila-
ko neskei dagokienez, 44-
56 galdu zuten Alde Zaharra
taldearen kontra. Bergara-
rrak partidu ona egiten hasi
ziren 8 tantuko alde lortuz
baina donostiarrak berehala
aurreratu ziren markagai-
luan. 23-29 amaitu zuten le-
hendabiziko zatia.

Bigarrena hasi eta David
Urbinak entrenatzen duen
taldeak joko ona erakusten
jarraitu zuen; dena dela, ez
zen nahikoa izan kanpotar-
rei irabazteko. Partiduak
nahiko berdinduta jarraitu
zuen baina defentsa lane-
tan, kanpotarrek erabilitako
sistema aldaketak bergara-
rrak nahastu egin zituen eta
garaipena eraman zuten.

JOSE ANTONIO PAGALDAI/ Bergarako Athletic Club lagunartekoa
"Guerrero ekarri nahi dugu"

Txikitatik Athletic zalea,
une honetan Bergarako Ath-
letic Club lagunarteko pre-
sidente ordea da eta zuzen-
daritza batzordekoekin ba-
tera lagunarte txuri gorria
osatzen ari da. Duela bi aste
egin zuten "peña" osatzeko
deialdia eta, dagoeneko, 50-
60 jarraitzaile inguru elkar-
tu dituzte. Egoitza nagusia,
Toki Ona bodegoian dute.

G. Nolatan lagunarte txuri go-
rria Bergaran?

E. Ligako partidu guztiak tele-
bistan ematen hasi zirenetik,
asko ginen Toki Onara gertura-
tzen ginenak Athletic ikustera.
Han sortu zen ideia. Jarraitzaile
asko ditu Athleticen Bergaran

eta inguruetan. Bizkaitik gertu
izatea arrazoi bat izan daiteke.
Oraindik ofizialtasunaren bila
gabiltza, paperak egiteak den-
bora eskatzen baitu, baina da-
torren denboraldirako prest
izango gara.

G. Zenbat jende elkartzea es-
pero duzue?

E. Erantzun ona jaso dugu. Egu-
nero ematen du norbaitek ize-
na. Talde handia bilduko gara
uste dut.

G. Zer egiteko asmoa dago?

E. Ofizialtasuna lortuaz batera
aurkezpena. Imanol, Luis Fer-
nandez eta Guerrero ekarriko
ditugu aurkezpena. On-
doren, pare bat irteera an-
tolatuko ditugu. Bestalde,
etorkizunean eskola kirola

lean arituko diren gaztetxo-
en artean, Athleticen talde bat
ere eratuko dugu. Bestelako
ekintzak ere antolatuko dira.

G. Athletic eta Real zaleen ar-
teko "pikea" sanoa da?

E. Bi aldeetan daude erradika-
lak direnak. Ni txuri gorria naiz
baina ez nago horren alde.


KARTELDEGIA
FUTBOLA
Bergara-Mutriku

Neskak

Zapatua. 15:30. Ipintza

Bergara-Añorga

2. mailako kadeteak

Zapatua. 17:15. Ipintza

Bergara-Hamaikak Bat

Lehen mailako kadeteak

Domeka. 11:00. Ipintza

ESKUBALOIA
Bergara-Amaña

Jubenil neskek

Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Iraundi Bergara- Legazpi

Senior mutilak

Zapatua. 17:45. Kiroldegia

PILOTA
BERGARA HIRIA SARIA

Afizionatu maila

• Arbizu eta Errasti

Otaegi eta Zabala

• Txafe eta Iparragirre

Beloki eta Okiñena

Martitzena. 19:30. Pilotalekua

PROFESIONALAK

• Alustiza eta Zearra

Tirapu eta Errasti

• Urionaguena eta Balerdi

Koka eta Imaz

Zapatua. 17:00. Pilotalekua

HERRI ARTEKO TXAPELKETA
Bergara-Segura

Eguakitzia. 19:30. Pilotalekua


ARETO FUTBOLA
Bergarako Lagunak-
Zaldibi

Neskak


Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Lazkano, Tamayo eta Iñurrategi anaiak Grezia, Iran eta Pakistanen

Hiru hilabete iraungo duen espedizioa hilaren 18an hasi zuten




Igandean abiatu ziren Jon Lazkano, Jose Carlos Tamayo, Felix eta Alberto Iñurrategi hiru hilabete iraungo dituen espedizioako lehen mendia igotzera. 2.917 metro dituen Olimpoko gailurra egin eta bihar, zapatua, Euskal Herrian izango ditugu berriz ere. Dena dela, eguaztenean eta espedizioarekin jarraituz, Iraneruntz abiatuko dira.



Izenik Gabeko Dorrea (argazkian) eta Nanga Parbat, laukotearen azken jomugak.

errepidez zeharkatu eta al-daketa horretaz jabetu. Ezagutzen ez ditugun toki asko ezagutuko ditugu. Espedizioa da eta telebistarekin goaz baina, era berean, as-



paldian egin nahi genuen bidaia da, nahiz eta azkenean plan aldaketak izan diren”.

BOST MENDI

Ezingo dira Turkiatik pasa eta Iranera, hegazkinez joan behar izango dute. Al Filo de lo Imposible-koekin doaz, eta telebistakoek ez dute arriskatu nahi. Kurdoek atzerritarren kontra eraso egingo dutela esan zuten eta, ondorioz, ezingo dute hasierako ideia bete. “Ez dut uste ezer gertatuko zenik. Askotan izan gara horrelako kasuen aurrean eta

ez zaigu inoiz ezer gertatu”. Greziatik bueltatu eta berehala, 28an alegia, Iraneruntz abiatu eta itzalita dagoen Demavend sumendia eta Alan Khu (4.850) tontorra igotzeko asmoa dute maiatzean. Demavend mendia Iraneko garaiena da 5.645 metrokin.

Iranen izanik, Pakistanerako ibilbidea alokatutako autobus batean egingo dute. Karakorum mendikateruntz abiatu eta bertan, Izenik Gabeko Dorrea (6.251) eta Nanga Parbat (8.125) -espedizioako mendi garaiena- igoko dituzte. “Azken hau lasaitasunez igotzea espero dugu. Uztailean. Zortzi milako bat da eta ordurako izango dugu hilabete baino gehiago bizkarrean. Ordurako nekea igarriko da eta kontuz ibili beharko dugu. Ezaguri ezberdinetako mendiak dira. Batzuk beste batzuk baino errezagoak, baina guztiak bere ezaguri propioekin”. Euskal mendizaleak uztailean itzuliko dira etxera. ■

“Asmoa Euskal Herriko kotxez abiatzea bazen ere, Turkiako egoera politikoa dela eta, hegazkina erabili beharko dugu”

JON LAZKANO

Ariznoa taldeko eskolarra Gipuzkoako finalerako atarian

Joan zen domekan, eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketako bigarren fasea jokatu zen Labegaraletan. Hasiera batean Ariznoa taldea bere osotasunean aurkeztu behar bazen ere, Irati Arteaga eta Virginia Odriozola bakarrik aritu ziren. Irati 6. postuan gelditu zen eta Virginia berriz, 8. postuan.

Domekan Gipuzkoako taldeen arteko txapelketa jokatu da kiroldegian. Goizeko 11:30etan, infantil, junior eta senior mailakoak arituko dira eta arratsaldeko 17:30etan, berriz, jubenil mailakoak. Bertaratuko diren



Eskuma-eskuman, Irati Arteaga eta Virginia Odriozola bergararrak.

taldeak, Bergarako Ariznoa, Ipurua eta Donostiako taldea izango dira. Bergara ordezkatzeko Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua

jubenil mailakoak egongo dira. Eibarko Ipurua taldean junior mailako bi bergarar izango ditugu; Aintzane Narbaez eta Leire Lasa.

Aitor Zabaleta Arrateko errege

Asteburuan jokatu zen Arrateko XXXI. Igoerak eman dio hasiera aurteko mendiko autoigoeren denboraldiari. Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria den saio honetan, Aitor Zabaletak lehendabiziko postua eskuratu zuen, 2'33"35ko denbora egin ondoren. Bigarren postua Andres Vilariñoren zat izan zen 2'35"44ko denborarekin. Zabaleta eta Vilariñok lasterketa gogorra izan zuten. Vilariñok lehen itzulian denbora onena egin bazuen ere, Aitorrek bigarren txandan azken denbora hori gaitziteza lortu zuen.

Bestalde, Bergarako German Hernandez eta Javier Bretaña gidariak ere izan ziren bertan. Bietatik German izan zen denbora onena egin zuena. 3'22"tan igo zuen Arrate. Guztira 45 gidari inguru elkartu ziren Eibarren Arrateko XXXI igoeran.

Piraguismoan Sasigain lehen bergararra



Beti Bustik antolatuta, udaberri denboraldiko lehen piraguismo proba zapatuan jokatu zen Usondo parke ondoko Deba errekan. Bertan, 10 eta 13 urte bitarteko 30 gazte inguru bildu ziren. Bergararrak, infantil mailan aritu ziren. Bergarako lehena Joseba Sasigain izan zen, 4. postua eskuratu zuelarik. Ondoren, Markel Agirrek jarraitu zion. Udaberriko eskola kiroleko denboraldia, Bidasoa ibaian eta Urrietako Ereñoso ibaian jokatu diren beste bi probekin osatuko da.

Bergara Hiria Saria martitzenean hasi zen

Bergara Hiria pilota txapelketari, martitzeneko partiduek eman zioten hasiera. Azpiroz eta Urberoa-gak 22-16 irabazi zioten Iratzoki eta Tirapuri, eta Mugu-ruza bergararrak eta Mendiluzek 22-13 Amerika eta Bengoetxeari.

Antolatzaileek bikote interesgarriak aukeratu dituzte aurten. Hauen artean, Iker Muruamendiaraz eta Iñurategi dira faborito na-

gusiak. Ikerrek, Bergara Hiria Saria 1997. urtean Eneko Galarza bikote zuela irabazi zuen. Txapelketako 24 pilotariak, afizionatu eta promesa mailan arituko dira, eta maila bakoitza 2 multzotan banatuta dago multzo bakoitzean hiru bikote izanik. Ekaina bitartean, asteartero partidua jokatu dira pilotalekuan 19:30etan. Finala, berriz, ekainaren 18rako iragarri da.

ESKOLA KIROLA Karteldegia

ESKUBALOIA

Infantil mailako mutilak:
11:00: Aranzadi-Torrebaso
Zapatuan, Labegaraletan

SASKIBALOIA

Infantil mailako mutilak:
12:00: Aranzadi-La Salle
Zapatuan, Labegaraletan

BADMINTON

Alebin maila:
10:30: M. Lagundia / San Martin
11:30: Aranzadi
Zapatuan, M. Lagundian

FUTBOLA

Benjamin maila (zapatuan Ipintzan):
10:30: Antzuola A- M. Lagundia D
10:30: San Martin A-Antzuola B
11:30: San Martin B-Aranzadi 2
12:15: M. Lagundia A-Aranzadi 4
12:15: Aranzadi 6-M. Lagundia E
11:30: M. Lagundia B-Aranzadi 3 (zapatua. Ipintza D.B.Hn)
Infantil maila (zapatuan, Ipintzan):
09:00: M. Lagundia-Almen

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Alebin maila (zapatuan, Almenen):
10:00: Almen-Aranzadi 11
Infantil maila (zapatuan, Ipintzan):
11:30: Aranzadi-Jones Etxeberria (Orereta)

PIRAGUISMO

09:30: Aranzadi 6.maila (mutilak)
10:30: Aranzadi / M. Lagundia (neskak)
11:30: Aranzadi 5 (mutilak) / S. Martin
12:30: M. Lagundia (mutilak)
Zapatuan, Agorrosingo igerilekuan.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Masterreka. 943 76 17 49.

Elorregi. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

Ibargarai. 943 76 59 98.

Martoko. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarra-
gan. 943 76 23 84.

Soraluzen. Berritzua eta
amueblatuta.
943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamendua Zarau-
tzen (abuztuan ez).
943 76 42 05.

Etxea alokairuan.
Deitu 943 76 18 96
telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. 943 85 36 99.

Pisua hartuko genuke
alokairuan. 943 76 26 82
/943 76 57 34.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktua
Deiak
Bestelakoak

ETXE KONPARTITUAU

Gela nahi nuke pisu kon-
partituan. 943 27 77 80.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artza-
mendin. 943 76 06 25.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Aranerrek. 943 76 28 07.

Masterreka. 945 23 48 07.

Garajea saldu edo alo-

katzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Kruz Ga-
llastegin. 943 76 27 61.

Garajea salgai Boni Las-
kurainen. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Po-

ligonoan. 943 76 32 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan
hartuko nuke Zubietan.
Deitu 943 76 47 50
telefonora (Jabi).

Garajea alokatuko nuke.
943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Taberna-jatetxea alo-
kairuan. 943 76 41 71/

76 37 80 (gauetz).

S. Pedro. 943 76 10 39.

ERRENTAN HARTZEKO

Nekazal lursaila (2.000
m2) alokairuan hartuko
nuke. 943 76 26 79

4. LANA

ESKAITZAK

Erizain titulatuak gaixo-
ak, edadetuak edo hau-
rrak zainduko lituzke.
943 76 37 99.

Etxeko lanak edo hau-
rrak zaindu. Esperien-
tzia. 943 76 72 32 (Ana).

Neskak, goizez, haurrak
zaindu edo etxeko lanak
Deitu 943 76 46 07
telefonora.

Neska edozein laneta-
rako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldean lan egingo
nuke. 943 76 52 39.

Astebukaeretan taber-
nari lanak egingo nituz-
ke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak
zaindu edo dendan lan.
943 76 53 71 (Maite).

Emakume batek etxeko
lanak edo atariak garbi-
tu. 619 52 98 04.

ESKAERAK

Senar-emazte edade-
tuak zaintzeko pertsona
behar da. 629 26 39 45

Uztail-abuztuan etxeko
lanetarako neska behar
da. 943 76 22 39.

Etxeko lanak egin eta
umeak zaintzeko ema-
kumea. 943 76 44 08.

Etxeko lanak eta umeak
zaintzeko emakumea.
943 76 54 12 (gauetz).

**INGELES
IKASTARO
BEREZIAK**

Maiatza, ekaina, uztaila

Enpresak / Ingeles tekniko-
komertziala / Negozio-bidaia /
Azterketak, elkarriketak / Oporrak
**GOIZETAN, EGUERDIETAN
ETA ARRATSALDEETAN**

**UZTAILEAN
ume eta helduendako
IKASTARO TRINKOAK**

Atzerriko egonaldietarako argibideak:
**Eskozia, Irlanda,
Ingalaterra, Estatu Batuak**




Ibargarai 31,
barruko plaza.
Tf. eta faxa
943 76 03 53.
Astelehenetik
eguakitzera
10:00-12:30.

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



**Tabernari-lanak
egiteko neska
behar da**

943 76 23 71

**Arantza
Erlojutegia**

Barrenkalea 4
943 76 10 04

**FERRETERIA
INDUSTRI HORNIDURAK**

LAKOTA

Amillaga 1, 3 pabilioia. 217 posta kutxa
Telefonoak: 943 76 08 32 / 76 01 96
Faxa: 943 76 08 32

Emakume euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 13 23 (Arantza).

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Ingeles filologian lizenziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Yamaha 250 cc. motora, beltza eta kromatua. 943 76 28 92.

Suzuki GSX 750 motora salgai. Prezio ona. Deltu 610 20 82 78 telefonora.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Aire egokitua. Kilometro gutxiarekin. 943 76 23 12.

Honda CR motora salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Renault Super5 (SS-AB) 943 79 68 75.

Honda NSR 80 motora salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motora salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesela. 617 20 66 29.

Yamaha 600 Diversion motora. 943 76 08 83.

Naus 485 karabana, 5 plaza. 943 76 44 07.

Trialeko Beta 250 cc. motora salgai. 225.000 pezeta. 943 76 19 88.

Suzuki GSX 750 F motora prezio onean salgai. 610 20 82 78.

7. ANIMALIAK

SALDU

Ardi txakurkumeak (arrak eta emeak). 943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

Untxi indiarrek salgai. 943 76 33 12.

Hamsterkume indiarrek salgai. 943 76 43 70.

8. DENETARIK

SALDU

Opera eta kamara musika CD bildumak salgai. 943 76 58 05 (Juanje).

Trabesiako eskiak salgai. 943 79 06 33.

Altzariak salgai, berri-berriak. 619 80 26 06.

Berogailua-akumuladorea salgai. 943 76 44 19.

Errepideko bizikleta (8-12 urtekoentzat). 943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskatilarena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea salgai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera onean salgai. 943 76 13 53.

Kalentadore termo berri

bat saldu nahi nuke. 943 76 30 83 (Juli).

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Logela-altzariak. Egoera onean. 943 76 06 78 (21:00etatik aurrera).

Altzari klasikoak salgai. 943 76 17 08.

Kitarra espainola. Berria. 943 76 59 94 (gavez).

Dina pisu elektronikoa (5 kg.) eta erlojuko beste pisu bat (25 kg.) salgai. 943 76 17 24.

EROSI

Kitarra elektriko eta anplifikadorea. 607 95 77 48.

Diska singleak, LPak eta Silvie Vartan, Johnny Halliday, Françoise Hardi eta Luis Marianoren argazkiak azalean dituzten aldizkariak erosten ditut. 943 52 65 77.

GALDU

Zapata larrosa bat galdu da Santa Marina inguruan. 943 76 48 27.

Kartera larrosa galdu dut, objektu pertsonalekin. 943 76 30 32.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

OPTIKARIA
Bilbo. 17712/6

ARKITEKTOA
Plentzia. 17890/3

LH-II MEKANIKA
Altsasu. 18199/2

ESTETIZISTA
Goierri. 18212/4

ELEKTRIKARIA
Bilbo. 18215/4

LAMINATZAILEA
Arrankudiaga. 18221/1

TALADRO LANGILEA
Plentzia-Mungia. 18267/3

DELINEATZAILEAK
Durangaldea. 18360/4

AZAFATAK
Bilbo. 18493/1

**PARKINGERAKO
KOBRTAZAILEA**
Deba Behea. 18370/3

KOMERTZIALAK
Ibai eskuinaldea. 18492/1

ESKAIOLISTAK
Ugao. 18496/3

**LOGISTIKA
ARDURADUNA**
Bilbo. 18505/2

**PROIEKTU
TEKNIKARIA**
Amurrio. 18800/1

GOZOGILEA
Arabar Errioxa. 17418/2

**PLADUR
MUNTATZAILEA**
Arabar Lautada. 17433/4

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

**DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

AROSZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENZOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

OLATZ GOIBURU



margo-erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Mariaren Lagundiaren artxibo zaharreko bost musikagileren partiturak argitaratu dira

Zapatu honetan aurkeztuko dira Kanta Cantemus koroaren emanaldian

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazok joan zen domekan Udal Pilotalekuan eskaini zuten emanaldi arrakastatsuen ondoren, Mariaren Lagundiaren 200. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldien barruan, beste musika emanaldi interesgarri bat iragarri da zapaturako.

Kanta Cantemus ahots zurien korua eta Oscar Candendo organujolea Mariaren Lagundiko elizan izango dira zapatuan 19:30etatik aurrera. Kanta Cantemus koroak Donostian du egoitza, baina bertako kantariak Gipuzkoa oso hainbat herritakoak dira. Nesken koruko zuzendaria Jabier Busto da. Bertako kideak ez dira profesionalak, baina musika prestakuntza handikoak dira. Zapatuan, Oscar Candendo organujole antzuolarrak lagunduko die. Bestalde, Mariaren Lagundiko koruak ere parte hartuko du kontzertuan.

MEÑDE HONETAKO BOST MUSIKAGILEREN PARTITURAK

Zapatuko emanaldia dela eta, argitaratu berri diren Mariaren Lagundiko artxiboko bost partitura aurkeztu ziren joan zen astelehenean. Aurkezpen ekitaldian, Iñigo Alberdi, Mariaren Lagundia ikastolako musika departamenduko kidea, eta Iñaki Cárcamo, partiturak argitaratu dituen Duo Seraphin musika argitaletxeko zuzendaria, izan ziren.

Bost dira ikastetxearen 200. urteurrena ospatzeko argitaratu diren partiturak. Partitura horietan honako lan hauek jasotzen dira: Eustakio Azkarate-Askasuren "Jesus jaio berria" (1931), Jose Antonio Erauzkinen "Veni sponsa" (1942), Licinio Reficeren "Stabat Mater" (1950), Miguel Gonzalez Bastidaren "Belengo estalpe txiki batean" (1960ko hamarkada) eta Ion Oñatibiak moldatutako "Erraguzu, Maria" (1972) doinu herrikoia.

Bost lan hauek, esan bezala, Mariaren Lagundiko artxiboan gordeta zeuden. Lan horien musikagileetako bi



Iñigo Alberdi Mariaren Lagundiko musika departamenduko eta Iñaki Cárcamo Duo Seraphinekoa.

bergararrak dira: Eustakio Azkarate-Askasua eta Miguel Gonzalez Bastida. Beste hirurak, bergararrak izan ez arren, Mariaren Lagundiarekin harreman zuzena izan zuten eta bertako korurako propio egindako lanak dira argitaratu direnak.

LICINIO REFICEREN "STABAT MATER"

Licinio Refice italiarraren "Stabat Mater" da bost lanetatik garrantzitsuen edo ederrena. Iñigo Alberdi argitalpen hauen bultzatzaile eta koordinatzaileak adierazi zuenez, musikagile italiarra gutxienez bi bider izan zen Bergaran. Horieta batean, Mariaren Lagundian hartu zuen ostatu eta bertako koruarekin harremanetan jarri zen. Bere lanak Euskal Herriko eliza askotan kantatzen ziren mende honetako lehen zatian.

Zapatuko emanaldian bost partituren egileak omenduko dituzte Mariaren Lagundian

Bestalde, bost musikagileen artean, bizirik dirauen bakarra Miguel Gonzalez Bastida bergararra da. "Belengo estalpe txiki batean" Gabon kanta, Mariaren Lagundian Gabonetan antolatzen ziren kantu lehiaketa baterako idatzi zuen.

MUSIKARIENDAKO PARTITURAK

Iñaki Cárcamo Donostiako Duo Seraphin musika argitaletxeko zuzendariak adierazi zuenez, garrantzia handia dauka era honetako partiturak argitaratzeko, bertako konpositoreen lanak musika talde, abesbatz eta koruentzat eskuragarri jartzea oso inportantea delako. Partiturak salgai izango dira zapatuko emanaldian. Bakoitza 300 pezetan salduko da, "Stabat mater" izan ezik, hau 500 pezetan salduko baita. Partituretan, egileei buruzko azalpen laburra ere jasotzen da.

Zapatuko musika emanaldian, beste batzuen artean, bost partitura hauek abestuko dira eta, bide batez, partitura hauen egileak omenduko dituzte. ■



Tapiarekin batera Leturia izango da panderoa jotzen datorren eguenerako erromerian.

Joseba Tapiarekin erromeria


Joseba Tapiaren erromeria iragarri da datorren eguenerako Kartzela Zahararren kanpoaldean. Leturiaren laguntzaz erromeria eskainiko du Joseba Tapiak. Emanaldia Kultur Errotaren egitarauaren barruan antolatu du Jardunek.

Erromeria izango denez, dantzarako gogoia duten guztiak animatu nahi

dituzte antolatzaileek. Xamatz dantza taldeko kideak ere izango dira bertan. Dantzarako soinuekin batera, jateko eta edatekoak ere izango dira, ohizko erromerietan bezala. Emanaldia, esan bezala, datorren eguenerako, hilak 29, iragarri da Kartzela Zaharreko patioan arratsaldeko 7:30etan hasita.

Juan Jose Altuna eta bere ikasleen pinturak

Domekara arte ikusgai daude Kultur Etxean Juan Jose Altuna Akizu eta bere 20 ikasleen pinturak. Estilo aldetik, era askotako lanak daude eskegita: inpresionismoa, errealismoa eta figuratibismo berria lantzen dutenen lanak ikus daitezke. Batzuentzat, lehen erakusketa da; beste batzuk, berriz, "beteranoak" dira kontu hauetan. Erakusketa, esan bezala, domekara arte izango da zabalik. Zapatua eta domekako ordutegia honako hau da: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



erreseinak



Daniel Landart
Anaiaren azken hitzak
Eleberria

Daniel Landart txikitatik egon da letratatik gertu. Idazten hasi baino lehen, inprimategi batean hasi zen lanean eta berehala ekin zion kultur-gintzan ere: "Gazte" eta "Herria" aldizkarietan idatziz lehenengo, poema-liburu bat argitaratuz geroago eta antzerki lanak idatziz ondoren. Eleberriak, berriz, bi idatzi ditu eta "Anaiaren azken hitzak" da bere hirugarren eta azken nobela. Bertan, Paxkal laborari- seme gazte baten gora-beherak kontatzen dira; nabarmentzeko gogorik ez duen eta beti bere anaia Abelen itzalpean bizi izan den mutil koskorren nondik-norakoak. Anaiaren heriotzaren zoritxarrak berez dakarren atsekabeaz gain, erantzukizun berrien zama datorchio Paxkali bizkar gainera....

- Elkarlanean. 193 orr. 1.800 PTA



Mixel Arotze, Maddi Oihenart, Mixel Etxekopar
Lurralde zilarra
Folk

Mixel Etxekopar, Maddi Oihenart eta Mixel Arotze, Zuberoako mendietako kantoreak, Zuberoako nekazal giroko abesti tradizionalak bildu dituzte disko honetan. Hiru kantarien ahotsak dira diskoaren oinarria, eta txirularekin, klarinetearekin, txalapartarekin eta kontrabajoarekin primeran egokitzen dira. Zuberoako betiko 14 kantu erromantiko.

- Agorila. 2.200 PTA

ARREGI

Eraikuntza
materialak



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Bitlegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Ausartak, beldurgabeak. 2. Landa eremuko eraikina. Bokala. 3. Asiako estatua. Estu samar, urduri. 4. Pinu-mota. Jasoa. Tona. 5. Kanpo, landa. Garoa, iratzea. Zelai. 6. Harri txintxarra. Musika nota. 7. Bostehun. Jarriak. 8. Beldur. Titanioa. Modu atzizkia. 9. Bokal errepikatua. Miatzearen ondorioa. 10. Usain txarra. Gipuzkoako hiria.

Goitik behera

1. Txangoak. 2. Zaudete. Gipuzkeraz, zain. 3. Uso ar. Gu. Nitrogenoa. 4. Kenketaren ikurraren izena. 1998an. Molibdenoa. 5. Ez eme. Komunikabide-mota. 6. Ezagutzera emana. 7. Jaurtiketa. Alderantziz, jainko egiptoarra. Alderantziz, iparretarrak. 8. Eroso. Gizon izena. 9. Bokala. Bat. Poztu. 10. Abestiak. Non atzizkia.

Soluzioa

10. Kantuak. An.
9. A. l. Alaitu.
7. Tiro, ar. kl. 8. Zabal, lker.
Mo. 5. Ar. Iratia. 6. Iragarria.
3. Usar. Geu. N. 4. Ken. Iaz.
1. Ibiatdia. 2. Zarete. Zai.
Goitik behera
9. Aa. Miketa. 10. Kinoa. Irun.
7. D. Ezarriak. 8. Izu. Ti. Ki.
5. At. Ira. Lau. 6. Legarra. La.
3. Iru. Arbin. 4. Ier. Igoa. T.
1. Irukatzak. 2. Baseria. A.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Ze izen du zubipearen bestaldeko ibiltokiak?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak Txuringo jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Mariasun Berriotxo**arentzat: Panaderokua jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Mariasuni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Sagar-Pe. 51 urte** Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



**Txuringo
Jatetxea**

Osintxu
Tf. 943 76 48 63

Klinika laguntzaile ikasketak burutu zituen eta atzeratuen monitore tituloa ere badu. Orain dela 13 urte Txolarte atzeratuen aisialdirako taldean hasi zen lanean eta gaur egun bertako arduraduna da Maite. Berarekin batera 6 monitore ari dira.

Zer izan nahi zenuen txikitan?

Erizaina.

Gutxituekin lan egiteko beharrezko kalitatea?

Gogoa eta borondatea.

Beraiekin lan egitearen gauzarik onena?

Motibazioa.

Eta txarrena?

Zenbait kasutan, inpotentzia.

Euren izaeraz zer nabarmenduko zenuke?

Xumeak, diferenteak direla. Burugogorrek ere bai zenbait kasutan, eh?

Beraiengan gehien apreziatzen duzuna?

Ematen dizuten maitasuna.

Zein da antolatzen dituzuen jardueretatik gehien gustatzen zaiena?

Meriendak, dantzaldiak, jokuak, irteerak eta udako oporrak.

Non egon zineten iazko udan?

Las Fraguas-en, Kantabrian.

Zuretako aisialdiarik baduzu?

Bai, moldatzen naiz.

Afizio bat?

Skia, surfa, pasiatzea...

Surfean egiteko toki bat?

Sonabian, Kantabrian.

Astebukaerarako plan on bat?

Eguraldi ona!!

Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?

Maite Garcia

Herriko kronika eta datozen kontzertuak.

Zelako musika gustatzen zaizu?

Denetik, bakailau musika kenduta.

Egondako azken kontzertua?

Manolo Garciarena, Gasteizen.

Musika entzuteko momenturik onena?

Gaua.

Zodiako zein zeinutakoa zara?

Kaprikornio.

Telebista ala irratia?

Telebista igual...

Gustoko programa bat?

Dokumentalak.

Eta ikusi ezin duzun beste bat?

Kotileozkoak.

Zenbat ordu egiten duzu lo?

Zortzi bat.

Irakurritako azken liburua?

"Crónica del desamor", Rosa Monterorena.

Plater bat eta edari bat?

Mariskoa eta txuleta; edateko, garagardoa.

Animalia bat?

Txakurra, pekines bat daukat.

Udaren atarian, solariumera joaten zara?

Ez.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Azores irltara. **B**



**Haurdun bazaude
LAURA da zure jantzidenda.**

**Udaberriko moda gaztea jazteko,
neurria ez da izango arazoa.**

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale 30
ARRASATE
Tf. 943 79 05 80

Labegaraietan meza, 1954

Domekan, apirilaren 25ean, 45 urte beteko dira goiko argazkia atera zenetik. Jesus Madariaga dominiko bergararrak egun horretan Labegaraietan emandako mezaren ostean aterata dago. Salamancan ikasketak burutu eta bertan, 1954ko apirilaren 11n, fraile ordenatu zuten Jesus Madariaga. Ondoren, apirilaren 18an, San Pedroko parrokiari Bergaran meza eman zuen aurreneko aldiz eta, apirilaren 25ean berriz, Labegaraietako elizan. Orduetik destino ugari izan zituen Madariagak: 1954ko irailean Estatu Batuetara, Kaliforniara joan zen, hurrengo urteko ekainean Texaseko Alice herrian izan zen lanean, Corpus Christiren Elizbarrutian eta 1957an, berriz, Mexikorako bidea hartu zuen. Mexikoko hiriburuan, Queretaron eta Tampicon izan zen lanean, 1977ko abenduan berriz ere Texasera itzuliz. Azkenik, joan zen urteko urrian Euskal Herrira itzuli eta gaur egun Elorrioko dominika monjen konbentuan dago.

Argazkian berarekin agertzen direnak bere auzoko neska talde bat duzue. Egundua izan zen 1954ko hura eta neskek dotore-dotore joan ziren mezatarara, ondoren argazkilariak lagun taldea erretratatu zuelarik. Hara hor zeintzuk diren argazki-koak, ezkerretik eskumara:

Goian: Mari Kruz Arregi eta Laura Lazkano.

Beherago: Arantxa Aiastui.

Bigarren ilaran: Arantxa Unamuno, Mari Kruz Alzerreka, Garbiñe Irizar eta Mari Karmen Iturbe.

Aurreneko ilaran: Mari Kruz Lazpiur, Mari Sol Lafuente, Jesus Madariaga, Gloria Arozena eta Milagros Arozena.

Argazkia: Garbiñe Irizar.



ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!


San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



MARKIEGI
 marka guztietako
 autoen
 konponketa
 mekanikoa
 eta
 pintura eta
 txapa lanak

MARKIEGI
 autoak



Leizeaga 1 (San Lorentzo Industri Poligonoa) BERGARA
 Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76

Gerta zaitez
 uda honetarako



Dei egizu konpromezu barik
 eta behar beste informazio
 emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA
 Edertze Institutua



Bidekurutzeta 7. BERGARA

Saio gutxirekin
 igarriko duzu aldea

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

9% ADI!
SELECTA, LINEA eta SENDA
sukalde modeloek
%25eko beharapena
dute maitzaren 23ra arte!



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR

Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.